

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 171. alea - 2013ko otsaila



**Ezten Giro taldea,  
erromeriari eusten**






**MULTIÓPTICAS UZURI**

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA  
TEL. 943 19 21 92

**MULTIÓPTICAS Uzuri**

ZURE  
ENTZUMENA  
ZAITZEN



**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasu
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel. faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**A D**

**ASESORIA DEBA C.B.**

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduarne: 669 895 619

HONDARTZA, 2 - BEHEA  
20820 DEBA (GIPIZKOA)

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482  
ase.deba@teletelne.es

**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel.: 943192263  
www.atarideba.com

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29

**ITXAS GAIN**  
Taberna  
**ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**oskarbi**

Menua  
Ogitartekoak  
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9  
Tel.: 943 029 458 - 816 644 014  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**MAZZANTINI**  
TABERNA

Sokagin, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel. 943 192 422

**BOKATAK - PINTXOAK**  
ETA GIRO ONA

Informática: **JL** Electrónica

Tresorería informática Osagai elektronikoa

Tel.: 943 19 17 83  
Faxa: 943 19 18 36  
Mugikorra: 686 939 601

Maxpe kalea, 7 - Behea  
20820 DEBA

e-mail: jl@informatica@elektronika.e.telefonico.net

**Bordatxo**  
JATETXEA

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Afariak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak



Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

**Argitaratzailea:**  
Zuhatza Euskara Elkarte

**Erredakzio taldea:**  
Goizane Aizpurua,  
Mikel Aizpurua,  
Koldo Aperribai,  
Izaro Aulestiarte,  
Nagore Dorronsoro,  
Lukax Dorronsoro,  
Xabier Laka,  
Migel M.Lekube (Lutxo)  
Ina Oiartzabal eta  
Eider Zulaika

**Azaleko irudia:**  
Ezten Giro erromeri taldea

**Publizitatea:**

Joseba Escudero eta  
Juan Mari Gurrutxaga  
Tlfnoa.: 943 19 13 83  
943 19 26 94

**Logotipoaren diseinua:**

Iñaki Elosua

**Maketazioa:**

Leire Rubio

**Banaketa arduraduna:**

Juanma Oiartzabal

**Inprimategia:**

Euskalinpri

**Tirada:**

1.400 ale

**Lege gordailua:**

SS-246-2009

**ISSN** 2171-7656

**OHARRA:**

*Berriketan-ek* ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTU-NAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

**ARGITARATZAILEAK**



**LAGUNTZAILEAK**



Debako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia



9



Irudiak: Ander Salegi



10



17

**KOLABORAZIOA:** Ibon Urkia, "Ero(so)tasuna". **05**

**ELKARRIZKETA:** Ezten Giro erromeri taldea. **07**

**OHITURA ZAHARRAK:** Kandelario eguna, San Blas, Santa Ageda, Inauteriak iruditan... **08-09**

**BERRIKETAN GAZTEA:** San Balentin, denbora-

**TENE MUJIKA:** Josu Martinez bilbotarrak irabazi du beka, "Presoaren betebeharra" izeneko proiektuarekin. **10**

pasak... **11-14** **ALBISTEA:** Martxoan abiatuko dira hondartzan duna bat eratzeko lanak. **15** **LABURRAK:**

Hileta edo omenaldi zibilak egiteko ordenantza arautu du Udalak... **16-17** **ZERBITZUAK:** **18**

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE ZUHATZAN**



260 bazkide gara dagoeneko Zuhatzan; eskerrik asko denei.



943 19 13 83

40.000 € inguruko aurrekontua du Zuhatzak 2012. urterako.

## ERABAKIAK, ONDORIOAK

Ez da lehenengo aldia, eta ez da azkena izango, gertatzen zaidala. Eskolan izan zen, gurasoentzako saio batean. Bildutakoen artean denak euskaldunak, bat izan ezik. Hasieratik zalantzak: saioa euskaraz egin ala gaztelaniaz. Euskaraz egin genuen. Erdaldunari laburpenak eginez eta alboan itzulpenak egiten zizkion irakasle bat jarriz konpondu genuen kontua. Jarrera ona erakutsi zuen pertsona hark; ez da beti hala izaten.

Euskaraz egin genuen baina ez zen erraza izan erabakia hartzea; ez da erraza izaten. Euskaldunok, askotan, ez baikara eroso, ez baikara lasai sentitzen horrelakoetan. Problema gure egiten dugu, errudun sentitzeraino askotan.

Baina zer dago horren azpian?

*“Gaixoa... Berak ez daki euskaraz, baina nik bai gaztelaniaz; niri ez zait kostatzen gaztelaniaz egitea, horrela denok ulertuko genuke eta ez genuke inor baztertuko”.* Horrelako zerbait pasatzen zaigu denoi burutik, ezta? Baina baditu pentsaera horrek hiruzpalau kontu erreflexiorako. Bi ekarriko ditut nik hona, ustez, potoloenak direlakoan.

1) Kostua dela-eta: gaztelaniaz egitea kostatzen ez zaigunik ez dut nik uste, kostea eduki baduelako, ez gaitezen engaina. Euskaraz ez dakien norbait dagoen bakoitzeko erdaraz egin beharko bagenu (eta pentsa, hori, Euskal Herrian zenbatetan gertatuko zaigun), euskara erabiltzeko aukerak erabat murriztuko litzazkiguke, euskara familiara eta talde oso mugatu eta itxietara kondentatuz. Gainera (nola diren kontuak, kamarada!), egoera horixe bera erabiliko lukete batzuek, esateko, euskaldunok ez dugula euskararekiko atxikimendurik erakusten ez dugula-eta erabiltzen. Esango dute itxiak garela, gettoetan bizi garela... eta gaur egungo bizitzan, munduari begira eta hari zabalik bizi behar dela, eta euskarak ez duela ahaleginik merezi (inguru hain txiki eta itxietan egitekotan), ez tematzeko. Eta esango digute, gaztelania

erabili behar dugula, eta ingelesa, aurrera egitekotan eta modernoak izatekotan. Baina Euskal Herrian euskaraz bizitzeak ez gaitu itxiagoak edo txikiagoak egiten, horrek ez baitu esan nahi gaztelania jakingo ez dugunik edo ingelesa ikasiko ez dugunik,... Bakoitzak bere tokia behar duela baizik: Euskal Herrian euskarak. Espainian eta herrialde hispanoetan gaztelania. Nazioartean ingelesak.

2) *Berak ez daki euskaraz, nik bai gaztelaniaz (...); gaztelaniaz eginez gero ez dut inor baztertuko.*


Bai, gaztelaniaz eginez gero, neure burua baztertuko dut. Nik bi hizkuntzak dakizkit. Zergatik? Ikasi dudalako.

Berak zergatik ez daki? Ikasi ez duelako. Baina, aizu, aizu, hark ikasi ez eta, hala ere, arazoa nirea da? Ala berea? Eta ez dezagun sinetsi, ez da egia-eta: euskaldunontzat erdara ikastea bezain erraza edo zaila da erdaldunontzat euskara

ikastea. Berdin berdin. Bi hizkuntzen arteko distantzia beti da berdina, bi norabideetan. Guk egin dugu. Elkarrekikotasun printzipioagatik besterik ez bada ere, uste dut zilegi dela eskatzea, egin ez dutenei, euskalduntzeko, gu erdaldundu garen maila berean. Zeren eta, nork baztertzen du nor, bi hizkuntzak dakizkienak ala bakarra dakienak? Nork inposatzen du? Nork errespetatzen du nor? Euskaraz ez dakienak berak jakingo du zergatik ez dakien. Bere aukera da. Bere aukera da, ondorio guztiekin. Aukera dezake ikastea ala ez ikastea; berak aukeratzen du, baina zintzo jokatu eta erantzukizuna hartzea eskatu behar zaio, bere erabakien ondorioak guri, euskaldunoi, egotzi gabe.

Eta amaitzeko. Bi hizkuntzak dakizkigunok ere aukeratu egiten dugu zein hizkuntzatan bizi: nola etxean, nola kalean edo lanean, nola lagunartean. Erabakiak hartzen ari gara uneoro, aukeratzen; eta guk ere zintzo jokatzen eta erantzukizunak hartzen ikasi beharko dugu, gure erabakien ondorioak beste inori egotzi gabe.

Amaia Zinkunegi



Seven Clovers  
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095





# IBON URKIA

## ERO(SO)TASUNA

Gizakia zer da? tximino erotua, jainkoen hautetsia ala ahuntzaren gauerdiko eztula? Bere txikitasuna onartzen ez duen umezurtz harroputza. Bere animalitasuna ukatzen duen galipotakumea. Bere egiaren absolutismoan, naturaren zaintzaile bakar izendatzen du bere burua, bera naturaren parte izango ez balitz bezala. Zaborra sortzen duen animala bakarra, animala errazionala, baina esaidazu egunean zehar zenbat denboraz? Lurra iraintzen duenak bere burua iraintzen du.

Espazioan dabil leku baten bila, dagoneko bere hilobiaren apaingarriak ez baititu gustukoak, baliabide naturaleri bizkarra emanez beharrak sortzen ditu etengabe, izatea edukia araberaren neurtzera iritsi arte. Eta hobe genuke, ba, onartzen hastea naturaren baitan gaudela, erosotasunak eta indiferentziak lortua baitute gu denok lo harraraztea.


DUT hondarbitarren hitzok gurera ekarrita, kantauriko kresalak zipristintzen

dituen Mendata-Sakonetakoko itxas labarretara narama gogoak, egun Europa zabaleko geologoen artean gero eta ezagunagoa bihurtzen ari den flysh geruzen eremu babestura.

Pelikuletakoak diruditen parajeotan, orain berrogei urte eskas inguru, bizi ziren baserriarrei ezusteko bisitaria agertu zitzairen atea joka. Ilunak bezain isilpekoak ziren asmoek begiz joak zituzten beraien baserri eta soroak.

Garai haietan inor gutxik izango zuen uranioaren berri. Ezinbestean argitu ziren hasierako asmo ilunak. Zentral nuklear baten eraikuntza zegoen baserrien desjabetzeen itzaletan. Tinta beltz iluna argitu ostean agiri ziren olagarroaren erro lizunak, barka biezedate zefalopodoek.

Zorionez, herritarrek, garai antolatu eta, hortzak erakutsi zizkieten alegiazko progresoaren izenean zetozen Iberduero eta enparaei. Orduan behintzat ez gintuen loak hartu.



Iritzi atal berria estreinatzen du **Berriketan** aldizkariak. Noizean behin aldizkarian berrikuntzaren bat sartzeko erronka izaten dugu, eta oraingoan gazteen iritzi atalarekin gatozkizue. Gazte Asanblada gehitu zaio gure ohiko kolaboratzaileen zerrendari; ongi etorri!

Hona hemen gazte mugimenduak ale honetarako prestatu duen idatzia:



## Aurrerakuntzaren atzaparretan

**Aldaketa bat dator**, tsunami baten indar eta azkartasunez. Erreakzionatzeko denbora badugu; baina, nahi al dugu?

Azken hamarkadetan, inoiz aurretik pentsa ezinak ziren aldaketak eman dira, hala nola, telebista, interneta, mugikorra... Hasieran ikusgarriak ziren eta oso erabilgarriak, baina onena ez zen asmakuntza horiek sortu izana; onena, erabilera ona ematen zitzaiela izan zen.

Gure gurasoen garaian, eta are gehiago aitona-amonen garaian, ederki bizi ziren. Euren ez zuten aurretik aipatutako ezer eta, denbora askoz hobeto aprobetxatzen zuten. Ume garaian, txapetan, kaniketan eta bizikletan jolastzen zuten; gaztarora iristerakoan karta jokotan, bikotea topatzen eta juergan pasatzen zuten denbora librean; eta, heldu aroan, lanean, familiarekin, txikiteoan...

Gaur egun, egoera oso desberdina da. Etxean gaudenean, sofan eseri, ordenagailua hanka tartean ipini eta, muturren aurrean dugun telebista pizten dugu. Ingurura begiratzen dugu batzuetan, begiek apur bat atsedean har dezaten; baina, ez gara konturatzen etxean gauzak egiteko daudela eta, horiek egitea guri dagokigula. Hala ere, hau gutxi balitz, kalera ateratzen garenean sakelakoa beti izaten dugu aldean. Ez zaigu sekula ahazten. Gailu hauek hondamendia ekarri dute. Gazteok ez dakigu ezer egin gabe egoten eta, nahiz eta askotan

entzuten diegun gurasoei: "Beti zaude ezer egin gabe", sinetsiiezadazue: ezer egin gabe egotea ikaragarritzko bertutea da. Pazientzia galdu dugu. Edonon gaudela ere hamar minutu oro begiratzen dugu mugikorra, ea zerbait iritsi zaigun ikusteko. Inbidia ematen didate trenean egunero ikusten ditudan zaharrek; beti doaz leihotik begira, auskalo zertan pentsatzen, bidaiatzat disfrutatuz, asmakuntza hauen atzaparretan preso erori gabe.

Aurrerago aipatu dudan bezala, asmakuntza hauek abantaila mundialak ekarri dizkigute baina baita gizarte aldaketa kezkarria ere. Badakit, gehienek pentsatuko duzuela abantailak merezi dutela kontrako efektu latz horien aurrean; baina ziur al zaudete?

*Antton Aizpurua*



**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitadaren administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



# Ezten Giro Erromeri Taldea:

*“Tristea litzateke erromeria desagertzea eta gu horri eusten saiatuko gara”*



Emakumezkoak, gazteak eta euskaldunak dira Ezten Giro erromeri taldeko kideak; Debakoa da bat, Lasturkoa bestea, billabonatarra hirugarren bat eta zumaiarra laugarrena. Bikote edo hirukote bezala hainbat plazatan aritu izan dira dagoeneko, baina laukote moduan martxoaren 2an arituko dira lehen aldiz, Itziariko Gazte Egunean. “Bazterrak poztu edo nahasteko” gogoz datoz musikariak, “saltsera samarrak” direla aitortuta.

## Nola sortu zen Ezten Giro taldea?

Hasieran Alaitz eta Maitane lehengusinak hasi ginen trikitilari bikote bezala. Gero Mirari (ikasketak Maitanekin egindakoa) gitarra ikastera animatu eta gurekin ondo konponduko zela pentsatuta hau ere gugarina hurbildu zen. Orduan pentsatu genuen taldeak izen bat behar zuela, eta hortik Ezten Giro erromeri taldea.

## Berriketan aldizkariaren azken alean bateria-jole bila zenbiltzatela azaldu zenuten. Lortu al duzue?

Azken boladan komentatzen ari ginena zen taldean bateria-jole bat izatea ez litzazigukeela gaizki etorriko eta iragarki bat jartzea pentsatu genuen. Facebook-en argitaratu genuen eta *Berriketan*-en ere atera zen. Batek baino gehiagok lagundu digu lan horretan eta uste baino lehen taldean bateria-jolea dugu.

## Nortzuk osatzen duzue taldea?

Alaitz Eskudero (16 urte, Debakoa) trikitixa, panderoa eta kabaxa jotzen ditu; Maitane Unanuek ere (23 urte, Lasturkoa) trikitixa, panderoa eta kabaxa jotzen ditu; Mirari Alkorta (23 urte, Billabonakoa) gitarra jotzen du; eta Nagore Etxabek (23 urte, Zumaiakoa) bateria jotzen du.

## Talde kide guztiak emakumezkoak zarete, beraz...

Bai, laurok neskak. Egia esan horren bila ez gara joan, baina momentuan ederki gabiltza horrela, mutil faltarik ez dugu sumatzen. Taldearen izenari begiratuta ere emakume kutsua gehiago du!

## Zergatik Ezten Giro izena taldeari?

Denok saltsera samarrak garelako, eta

gurekin tarteka ez delako giro izaten!!

## Noiz eta non izan zen zuen debuta?

Alaitz, Maitane eta Mirarik lehenengo aldiz Deban bertan jo genuen, San Juanetan.

## Zuen azken emanaldiak non egin dituzue? Eta zer moduz?

Andoaingo San Esteban auzoan, Arroa Behean, Lasturren, Aisterrazun... Denetan oso ongi pasatu dugu; batzuetan urdurirago, besteetan lasaiago, baina primeran. Aurten Gipuzkoako kantu txapelketara ere aurkeztu gara eta urduritasuna gehienbat hor nabaritu genuen, erromerietan normalean lasaiago aritzen gara.

## Zer nahiago duzue, herrian ala kanpoan jotzea?

Bietan, batean etxean jardutea bezala da eta bestean jende berria eta leku berriak ezagutzeko aukera izaten duzu; beraz, ez genuke bietako inor baztertuko.

## Erromeria taldea da zuena. Zer esango zenioke, adibidez, erromeria zaharkituta edo modaz kanpo gelditu dela esaten duenari?

Egia da agian garai batetik ona erromeriak aldatu egin direla. Hala ere, guk uste, gu bezala jende gaztea erromeriei eutsi nahian hor dabilela batera eta bestera eta jendeari oraindik gustatzen zaiola. Gu behintzat saiatuko gara horri eusten!

## Zer nolako kanta abesten dituzue?

Gehienak kanta herrikoiak, erromerietakoak eta beste talde batzuenak dira. Hala ere, baditugu pare bat kanta guk sortuak, bat kantu txapelketan abestu genuena, eta pix-

kanaka gehiago sortzen ere joango garelako pentsatzen dugu.

## Beti kantatzen duzue euskaraz? Zergatik?

Behin ere ez gara horretan pentsatzen jarri, baina bai, egia da. Agian, erromerietan ohikoena delako eta gu geu ere eroso sentitzen garelako euskaraz kantatzen.

## Gazte bezala, zerk kezkatzen zaituzte?

Gauza dexentek momentu honetan, baina gu erromeri zaleak izaki, musika estilo honen etorkizunaz pentsatzen jarri izan gara noiz edo noiz, eta honen iraupenak kezkatzen gaitu. Orain modan dagoen musika modernoak erabat estaltzea eta orain musika munduan duen tarte txiki hori egunen batean desagertzea. Musika mota hau bizi egiten dugu eta bizi arazi egiten gaitu. Beraz, guretzat oso tristea izango litzateke.

## Noiz eta non eskainiko dituzue hurrengo kontzertuak?

Martxoaren 2an, Itziariko Gazte Egunean jo behar dugu gaueko erromerian, eta horixe izango da laurok batera emango dugun lehen erromeria. Baina horretaz gain gu deitutako toki guztietara joateko prest gaude!

## Nola jar daiteke jendea zuekin harremanetan?

[eztengiro@hotmail.com](mailto:eztengiro@hotmail.com) emailera idatziz, Facebookeko orrialdean (Ezten Giro erromeri taldea) edota 647 154 877 telefonora deituta.

## Beste zerbait nabarmendu nahi duzue?

Deitu guri sin falta bazterrak pozteko eta pixka bat nahasteko!!

**Ohitura zahar ugari ospatzen ditugu, horietako asko otsailean bertan; baina, askotan ez dugu jakiten ospatzen dugun hori zer den, edota zergatik ospatzen dugun modu batean zein bestean. Hona hemen Luzaroko 5. mailako ikasleek txukun-txukun prestatu duten informazioa:**

## Kandelario eguna

Otsailaren 2an bedeinkatzen dira kandelak elizetan. Batzuk kandela zuzenak eta beste batzuek kandela biribilduak (argizariak edo erretxinak) eramaten dituzte elizara.

Antzinako euskaldunek uste zuten kandela bedeinkatu horiek haiek eta haien ondasunak babesten zituztela: -Ekaitz egunetan pizten zen kandela bedeinkatua, etxea eta bertan bizi zirenak babesteko. -Familiako norbaitek gaixo larria zuenean ere pizten zen kandela bedeinkatua, sendatzen laguntzeko. -Kandela kiribildu bedeinkatua piztu

eta ohe adarretan jartzen zen, jo edo eraso zitzakeen edozein sorginkeri edo gaitzetatik babesteko

Egun horretan ere, antzinako euskaldunek elizara zume sortak eramaten zituzten bedeinkatzeko. Gero, sorta bedeinkatu horiek etxe inguruko soroetan jartzen ziren eta, euren gainean, kandela bedeinkatuak. Horrekin, izan zitzaizketen arriskuak eta, baita familiaren baserri zein baratzatik sorginen agerpena ere, urrundu nahi izaten zen. Eta zumeak eta kandelak jartzen ziren bitartean "kandelario" abesten zen: "Kandelario leriowitzari ura dariosagarrari



*madarieutsi Peru adarrari. Euria dakar menditik Ondarroaren gainetik Eztaukat zapatarik banoa Lekeitiotik Kandelarioz eguzki, Negua dago aurreti, kandelarioz edurra, joan da neguaren bildurra".*

## San Blas



Otsailaren 3an, Kandelario egunaren ondoren, San Blas eguna ospatzen da. Euskal Herriko herri gehienetan mantentzen da bedeinkazio bereziak egiteko ohitura hau. Ohitura hau da: Lehen ohi zenez etxetik ekarritako janariak edo, eliza inguruetan kokatzen diren saltokietan erositako San Blas gozokiak, opilak, erroskilak eta kolore desberdinetako hari

bereziak, elizara eramaten dira.

Apaizak bedeinkatu eta gero hariak eta janariak aparteko indarra omen dute eztarriko minak eta gaixotasunak aldentzeko. San Blas hariak bederatzi egun pasa eta gero erre egin behar dira gaitzarekin amaitzeko. Kandelario egunean hasi eta ihauteriak arte etxe askotan tostadak egiten dira.

## Santa Ageda

Otsailaren 5ean ospatzen du eliza katolikoak Santa Ageda eguna. Euskal Herriko herri gehienetan, herri tradizioz, bezperan hasten da jaiaren ospakizuna, otsailaren 4ko iluntze aldera.

### Jaiaren tradizioa eta zentzuak

·Zentzu erlijiosoa: Santa Ageda jaiak, lojikoak denez, zentzu erlijio sakonenean, santa horri goratarre egitea du helburu, nahiz eta zentzu hori ia erabat galdua den probintzia osoan.

Santa Ageda egunez, Arabako herri guztietan izaten ziren elizkizunak, meza eman eta prozesioa egiten zen santaren irudia aurrean zela. Han-hemenka koloretako zapiak jaxten zizkioten nes-

kek, apaingarri gisa, irudiari.

·Anaitasun zentzuak: Urtarril bukaera iristean, herri eta auzuneetako mutilek, bildu eta, taldeak eratzen dituzte, ez oso handiak; zuzendaria edo guztien buru izango den bertsolaria izendatu edo hautatu ere bai, Santa Ageda bezperako eskeari ekiteko ordua jartzen dutelarik. "Mutil sartzea": Herri guztietan izaten zen mutil elkarte bat, elkarte teorikoa baino gehiago praktikoa; bertan sarrera formala egin gabea zenari ez zioten mutilen meriendetan, herriko jaietan parte hartzen uzten, are gutxiago Santa Ageda jaietan.

·Konjuru zentzuak: kanpaiak jotzea, zahagiak erretzea... Santa Ageda eguna-



ren bezperan, nekazariak erre egiten zituzten zahagi eta zahato zaharrak, eta korrika eraman ohi zituzten soroetara, sute eta izurri kaltegarrietatik babesten zituztelakoan. Mutilak, bestalde, kanpandorrera igo eta kanpaiak jo eta jo ematen zuten gau osoa, gaizkiaren izpiritua uxatu asmoz.

## Inauteriak



Inauteriak, Europan eta Amerikako hiri eta herrietan neguaren bukaera aldera jendeak mozorroturik ospatzen dituen jaiak dira. Ezaugarri bereziak haiek dira: umorea, parodia eta satira-giroa, gizarte ordena urratuz eta alderantzizkatuz.

Batzuen arabera, antzinako erromatarrek Isis jainkosaren omenez egiten zuten. Egun, ordea, erdi-aroko latinezko adierazpenen jatorria hobesten da.

Euskal Herrian, euskal mitologiako mozorroa da nagusi. Talde horretan mozorro mota asko daude: Mielotxin, Zaldiko, zanpantzarrak edo joaldunak, perratzaileak, kaskarinak, atorrak, erral-doitxoak, hartza... Ohitura da Zaldiko, plazan biraka dabilen bitartean, Mielotxin harrapatu eta sutan erretzea, bitartean jendea, bere inguruan biraka, dantzan... ibiltzen da.





# INDUTERAK 2013, IRUDITAN





## Josu Martinez bilbotarrak irabazi du Tene Mujika Beka, “Presoaren betebeharra” izeneko proiektuarekin

Azken mende erdian euskal presoek kartzelatik egindako ihesaldiak edo ihesaldi saiakerak kontatuko ditu bere liburuan. Hamar istorio bilduko ditu guztira.

Josu Martinez zinemagile, idazle eta musikari bilbotarrak irabazi du aurtengo Tene Mujika Beka, “Presoaren betebeharra” izenburuko saiakerarekin. Azken mende erdian euskal presoek kartzelatik egindako hamar ihesaldi eta ihesaldi saiakera biltzen dituen lana da.

Henry Charriereren “Papillon” eleberrri autobiografiko ospetsuan irakurritako esaldi batetik dator Josu Martinezen proiektuaren izenburua: “Preso ororen lehen betebeharra ihes egitea da”. Martinezen iritziz, “presoak bere kemen eta irudimen guztia erabili behar du horrelako saialdi batean, eta horrek benetako arte-lan bihurtzen ditu hainbat ihesaldi, guztiongan sinpatia bat-batekoa sortzen duena gainera: abenturazko ekintzagatik, batetik, eta, bestetik, boterearen eskumakila itsusia diren kartzeleroak barregarri uzten dituelako eta ekintzarik zailena ere posible dela erakusten digulako. Amets egiten jarraitzeko bidea ematen digulako, hitz batean”.

Bere lanean, euskal historia hurbileko hamar ihesaldi kontatzen ditu idazleak, ondo ateratakoak batzuk, gaizki amaitutakoak, besteak. Tartean daude Jose Mari Sagardui “Gatza” zornotzarrak Granadan egin zuen saiakera, Iñaki Pikabeak eta Joseba Sarrionandiak Martutenetik Imanol kantariaren bafleetan ezkutaturik alde egin zutenekoa, Segoviako ihes ospetsua edo Joxeantonio eta Ismael Berasategi anaiek La Santeko (Paris) kartzelan egindakoa –bata La Santen zegoela, bestea bisitan joan eta beren tokiak trukatu zituzten–.

Egileak ohartarazi duenez, garai politiko berriak errazago egiten du gauza hauetaz askatasunez hitz egitea; “posible ez ezik, baita komenigarria ere”.

### Egileari buruz

Josu Martinez (Bilbo, 1986) Ikus-entzunezko komunikazio eta Antropologia ikasketak egingo da, eta gaur egun euskal zinemagintzarekin lotutako doktore tesia burutzen ari da. Irratian zein prentsa idatzian kolaborazio ezberdinak egin izan ditu eta, besteak beste, Rikardo Arregi Kazetaritza Sari Berezia jaso zuen 2008an.

Zinemaren arloan, Euskal Herriko historia hurbilean kokatutako hiru dokumental burutu ditu orain arte. “Itsasoaren alaba” (2009), “Sagarren denbora” (2010) eta “Prohibido recordar” (2010); hirurak estreinatu ziren



Filmin S.L.

Donostiako Zinemaldian. Bere azken lana “Barrura begiratzeko leihoak” (2012) dokumental kolektiboa izan da; euskal presoek buruzkoa. Bertan, film laburretako bat eta proiektu osoaren koordinaketa burutu ditu.

Bestalde, 2011n “Hitzezko txalupak” liburua kaleratu zuen, Alfonso Etxegarai deportatuarekin izandako gutun trukea oinarri hartuta.

### Urtebete izango du lana burutzeko

Gure historia hurbilaz biografiak, kronikak, erreportajeak, saiakerak, elkarrizketak, ikerketak... bultzatzeko antolatzen dute Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak Tene Mujika Beka, herriko alaba Tene Mujika idazlearen omenez. Aurtengo deialdian, epaimahaiak Josu Martinezen proiektuaren aldeko erabakia hartu du. Hortaz, 6.000 euroko diru-laguntza lortu du bilbotarrak eta urtebete izango du bere lana amaitzeko. Ondo bidean, 2014ko udaberrian kaleratuko da bere liburua.

Lehenago, ordea, Xabier Gantzarain idazle eta arte-kritiko azkoitiarraren liburuak ikusi beharko du argia. Izan ere, Gantzarainek irabazi zuen Tene Mujika Bekaren azken deialdia, Euskal Herriko arte garaikidea eta historia lotzen dituen azterlana egiteko. Une honetan bere azterketa lantzen jarraitzen du, eta udazkenean argitaratuko du bere liburua.

## Abian da “Euskaraz? Pozik gainera!” bideo lehiaketa

Debako Udalak merkataritza sektorea indartzeko kanpaina bat jarri du abian. Kanpaina osoaren berri martxoan emango du, baina dagoeneko kanpaina horren barruko lehen ekimena martxan dago. Hain zuzen, denda eta tabernajatekietan euskararen erabilera bultzatzeko ekimena da; herritarrei zuzendutako bideo lehiaketa: “Euskaraz? Pozik gainera!”.

Lehiaketak, euskarak bizi duen egoera minorizatuari aurre egiten dioten arte-adierazpen mota oro onartu, baloratu eta bultzatuko du. Parte

hartzen duten proiektuek “Euskaraz? Pozik gainera!” jarrera islatu behar dute. Kalitate teknikoaren gainetik mezuaren kalitatea baloratuko da; hau da, euskararen jabekuntzatik gogoetak eta eztabaidak sortzeko gaitasuna.

Bi kategoria ditu lehiaketak: 12-17 urtekoentzat bata (“Dendariei euskaraz” gaia ardatz hartuta), eta 18tik gorakoentzat bigarrena (“Tabernariei euskaraz” gaiarekin). Lanak aurkezteko epea otsailaren 28an amaitzen da. Oinarriak eta informazio gehiago: [www.deba.net](http://www.deba.net) atarian.





# BERRIKETAN GAZTEA

2013ko otsaila

Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrear Sortua.

## San Balentin

Egun hauetan, San Balentini buruz asko hitz egiten ari gara. Baina zer da San Balentin? Noiz sortu zen San Balentin? Zer ospatzen da San Balentin egunean? Irakurri eta informa zaitez!

San Balentin eguna lurralde anglosaxoietan ospatzen den festa bat da. Festa hau XX. mendeaz geroztik zabaltzen joan da mundu osoan zehar. Otsailaren 14an ospatzen da. San Balentin, leku batzuetan maiteminduen eguna bezala ezagutzen da, eta beste batzuetan amodioaren eta lagunen eguna bezala.

San Balentin egunaren sorrera erromatar inperiotik dator. San Balentin Erroman lan egiten zuen apaiz bat zen; garai hartan, Claudio II.ak zuen boterea Erroman. Claudiok gazteen ezkontzak debekatu zituen, bere ustez ezkongabeak hobeak zirelako gerretan borroka egiteko. Apaizak ezkontzak debekatzea bidegabekeria bat zela uste zuen eta, ados ez zegoenez, ezkontzak ospatu zituen ezkutuan. Claudio ohartu egin

zen apaizak ezkontzak ezkutuan ospatzen zituela eta apaizari bere jauregira joateko esan zion. Claudiok San Balentin preso hartzea agindu zuen. Asturius Claudioren laguntzaile bat zen, eta Claudiok Asturiusi apaiza preso sartzeko esan zion. Asturiusek apaiza kartzelan sartu baino lehen, ordea, bere alaba Juliari bista emateko esan zion, hura itsua zelako. Apaizak Jesusen izenean bista eman zion. Azkenean, San Balentin apaiza hil egin zen eta Juliak bere omenez bere hilobian arbendolondo bat landatu zuen. Horregatik, gaur egun arbendola da amodioaren eta lagunen sinboloa.

Gaur egun, otsailaren 14an ekintza desberdin asko egiten dira: maiteminduek elkarri opariak egiten dizkiote, dendak egun honi buruzko apaingarriz betetzen dira, sms asko bidaltzen dira...

San Balentin egunaz gozatuko zenutela-koan... beste bat arte!







# elkarrizketa

Oraingo honetan, Arrate Usatorreri egin diogu elkarrizketa. Mendata institutuko Fisika-Kimikako irakaslea da.

**“Egunero gabilta bronkekin, baina funtsean harreman ona dugu”**



**Zer izan nahi zenuen txikitan?**

Irakaslea. Txikitan etxean panpineri klaseak ematen aritzen nintzen.

**Zenbat urte daramatzazu institutu honetan?**

Institutu honetan nagoen bosgarren urtea da hau.

**Beste instituturen batean egon al zara? Non?**

Bai, askotan. Zumaian, Bermeon, Sestaon, Barakaldon, Ermuan...

**Zer harreman mota duzu ikasle eta irakasleekin?**

Nire ustez, oso ona. Egunero bronkekin gabilta, baina funtsean harreman ona dugu.

**Zerk bultzatu zintuen irakasle izatera?**

Beti gustatu izan zait, txikitatik. Lehenengo, Matematikako irakaslea izan nahi nuen eta gero Matematikakoa eta Kimikakoa.

**Non burutu dituzu kimika ikasketak? Zaila egin al zaizu?**

Kimika Leioan ikasi nuen. Bai, lan asko egin behar zen.

**Noiz arte pentsatzen duzu egotea Mendata institutuan?**

Mendata ikastetxean finkoa naiz eta jubilatuta arte egotea pentsatzen dut.

**Gustura al zaude bertan?**

Bai.

EGILEAK: IKER LEIRO, ALEX TREKU, ANE GARCIA ETA NORA MANDIOLA



## INAUTERIAK



**INKESTA**


Hilabete honetako Berriketan Gaztea inauterien ostean kaleratu bada ere, aldez aurretik egin genien guk inkesta hau ikasleei:

- 1.- Zertaz mozorrotuko zara? Zeinekin?
- 2.- Nola lortuko duzu mozorroa?
- 3.- Zer ordura arte pentsatu duzu kalean egotea?
- 4.- Zer iruditzen zaizu aurten inauteriak hiru egun soilik izatea? Zergatik?
- 5.- Zer egunetan mozorrotuko zara?
- 6.- Gustatzen al zaizu mozorrotzea?



### Ainhoa Azkarate:

- 1.-Mineraz mozorrotuko naiz. Sara Antón eta Ane Garciarekin.
- 2.-Denda batean erosi dut.
- 3.-Amak lagatzen didan guztia.
- 4.-Zubi asko izan ditugunez, ez zait axola.
- 5.-Ziurrenik larunbatean.
- 6.-Bai, asko gustatzen zait.



### Hodei Gomez:

- 1.-Gominolaz, Ane Garciarekin.
- 2.-Donostiara joan naiz erostera.
- 3.-Ordubiak arte gelditu naiz.
- 4.-Gaizki iruditzen zait, iaz bost egun izan zirelako.
- 5.-Asteartean.
- 6.-Bai, gustatzen zait.



### Amaia Muguruza:

- 1.-Ez dakit oraindik. Koadrilarekin mozorrotuko naiz.
- 2.-Gauza batzuk erosi egingo ditut eta beste batzuk nik egingo ditut.
- 3.-Gurasoek uzten didaten guztia.
- 4.-Oso gaizki. Horrela eskola gal-tzen dugulako.
- 5.-Larunbatean eta asteartean.
- 6.-Bai, asko gustatzen zait.



### Gorka Gonzalez:

- 1.-Ez dakit zertaz mozorrotuko naizen. Lagunekin.
- 2.-Ez dakit, bilatuko dut zerbait.
- 3.-Ez dakit, gurasoek uzten didaten denbora guztia.
- 4.-Gaizki. Normalean egun gehiago izaten dira.
- 5.-Ez dakit.
- 6.-Bai, gustatzen zait.



### Malen Egaña:

- 1.-Oraindik ez daukat pentsatuta. Debako eta Itziarko lagunekin.
- 2.-Etxean egin edo dendan erosi.
- 3.-Berandura arte.
- 4.-Gutxiegi dela, nire ustez inauteriek gehiago iraun beharko lukete.
- 5.-Ahal dudan egun guztietan.
- 6.-Segun zertaz mozorrotzen naizen, bai.



### Andoni Garrido:

- 1.-Ez dakit, oraindik ez dut erabaki.
- 2.-Zarauzko denda batean erosiko dut.
- 3.-Ez dakit, gurasoek uzten didaten denbora guztia.
- 4.-Gaizki, horrela ez dugu klaserik.
- 5.-Egun guztietan.
- 6.-Bai, asko.

# DenBora-pasaak

## TXISTEA

Bi emakume elkartu dira, eta batak besteari esan dio:

-Nire senarra aingeru bat da.

-Hau zortea! -erantzuten dio besteak-  
Nirea oraindik bizirik dago!




## asmakizuna



\*Denek zapaltzen naute baina nik ez dut inor zapaltzen.

Denek galdetzen dute non nagoen eta nik ez dut galdetzen non dauden.

## PUNTUAK LOTU



### LAGUNTZAILEAK:



### BABESLEAK:



Debako Udala



### PRENTSA TAILERRA 2012-2013

Naia Orbegozo  
Maria Aizpurua  
Jon Yarza  
Iratz Fernandez  
Imanol Sobrado  
Jon Albizu

Aitor Gonzalez  
Alex Treku  
Ane Garcia  
Nora Mandiola  
Iker Leiro  
Amaia Mendicute

Koordinatzailea: Iraide Otazua



## Martxoan abiatuko dira hondartzan duna bat eratzeko lanak

Debako hondartzan duna bat sortzeko proiektu pilotuari iazko neguan ekin behar zitzaion, baina lanak atzeratu egin ziren eta badirudi aurtengo martxoan abiatuko direla. Herritarren artean albistek sortu duen interesa aintzat hartuta, *Berriketan* aldizkariak Udaleko Ingurumen Sailera jo du oraingon, proiektuaren nondik norakoak eta xehetasunak argitzeko asmoz.



**“Naturalki sortzen den arazo bat irtenbide natural baten bitartez konpontzea da proiektu pilotu honen helburua”**

### Zergatik sortu nahi da duna bat Debako hondartzan?

Hondartzak naturalek harea pilatu egiten dute dunetan. Hiri-hondartzek, aldiz, hau da, Debako kasuan, bere inguruan eraiki diren azpiegiturak direla eta, harea pilatzeko gaitasuna galdu dute. Dunak berez sortu beharko lirerateken lekuetan pasealekuak edota gizakiak eraikitako beste nola-baiteko eraikinak daude. Beraz, dunek, harea bertan pilatzea, hau da, hondarra ez galtzea dute helburu. Batek baino gehiagok pentsatuko du hondartzako sarrerak taulekin itxiz gero eta pasealekuko hormaren edo eserlekuaren altuera igoz gero, arazoa konponduta dagoela. Baina azkeneko urteotan, haizea eta itsasoaren eraginez hareak egin duen atzerapena eta gorakada direla eta, oztopo horiek ez lukete bermatuko harea pasealekura irtengo ez denik.

Gaur egun, bi arazo ditugu: haizearen poderioz pasealekura irteten den harea kopuru handiak sortarazten duen oztopoa eta hondar hau berriro hondartzara bueltatzea. Udalak irteadako hondarra bueltatzen du, baina beti galtzen da kantidad bat (ibaira erortzen delako, zumardiraino iristen delako...) Honako lanek kostu bat dute eta kostua handiagoa izango genuke hondarraren maila eraitsiko bagenu.

Ez ahaztu proiektua guztiz itzulgarria dela; beraz, helburuak lortzen ez badira, atzera jo dezakegu, landareak eta kaptadoreak kenduz.

### Non kokatuko da duna hori?

Ez du hondartzak guztia hartuko. Ondargain taberna inguruan sortuko dira, bertan ematen baita arazo handiena. Guztira 3000 m<sup>2</sup> izango dute, bi zatitan banaturik. Itsasgora eta itsasbehera kontuan izanda, batzuek besteko hondartzaren azalera 48000 m<sup>2</sup> da, beraz dunek %6,25 okupatuko lukete. Eta itsasgoran (udan) %10 baino gutxiago.

### Zertan datza proiektua? Alegia, nola sortuko da duna?

Hasieran hondarra pilatzeko zumezko kaptadoreak jarriko dira. Eta segidan kantuar dunetako landaredia landatuko da: *Ammophila arenaria*. Modulo edo zati bakoitzean 3-4 kaptadore lerro jarriko dira eta bakoitzean 10 landare m<sup>2</sup> bakoitzeko. Landareak babesteko, egurrezko itxitura arin bat jarriko da. Baita proiektua azaltzen duten panel bi ere.

### Deban ez ezik, Orion eta Hondarribian ere burutuko da egitasmoa, ezta?

Bai. Hiru hondartzek arazo berdintsua dute eta duten zabalera gutxiak posiblea da hondar lehorra metatzeko dunak sortaraztea.

### Nork du proiektu honen ardura? Eta zenbateko aurrekontua dute lanek?

Gipuzkoako Foru Aldundia da proiektuaren sustatzailea. Baina proiektua hondartzan egingo da, hau da, Itsas-lehorreko jabari publikoa den eremu batean, beraz, proiektuak estatuko Itsasertzaren eta itsasoaren iraunkortasunerako zuzendaritza nagusiaren oniritzia izan behar du. Proiektuaren aurrekontua honakoa da: 33.157 euro+beza.

### Uda ostean ekin behar zitzaizkien lanei, eta orain badirudi martxoan ekingo zaiela. Zergatik atzeratu dira?

Udalak dakienez, ez da inoiz esan irailean hasi beharko zirenik. Aurreko urteko neguan eman behar zitzaizkien hasiera, baina badirudi proiektua abian jartzeko legeak (Kostaseko 22/1988 legeak) eskatzen dituen pauso guztiak bete ez zirenez, urtebete atzeratu dela. Landareak landatzeko sasoa negua baita.

### Noiz hasi eta noiz amaituko dira lanak? Luze joko dute?

Otsailaren bukaeran edo martxoan hasiko

dira eta egun gutxi beharko dute amaitzeko. Gero harea naturalki bertan pilatu dezaten itxaron beharko da. Aurrera begira, Aldundiarekin batera proiektuaren jarraipena egingo da.

### Hondartzako erabiltzaileei eragingo al die duna berri horrek?

Dunak hondartzan izaterakoan, noski, eremu bat hartuko du, baina kokatuko den tokiagatik, ez da eraginik aurreikusten. Hala ere, bertan boleboleko sarea jartzen denez hori eskuinera eramango da. Aldundiak dioenez, altuera txikiko dunak izango dira, gehienez metro batekoak, beraz itsasoa ikusteko oztoporik ez da egongo, entzun izan den bezala.

### Dunak zikinkeria edota higie arazorik sor dezake, adibidez?

Sortuko diren dunak hondartzan daude, eta hondartzak bezala, hauek ere garbituko ditu Foru Aldundiak. Hala ere, gure esku dago eta gure ardura da zabor gutxiago sortzea.

### Proiektua jendaurrean aurkeztu zen abenduan, ezta?

Bai, baina esan, proiektua jendaurrean aurkeztu aurretik, udaleko teknikari eta zinegotziei aurkeztu zitzaizkien, guztiak proiektu interesgarritzat jo zutelarik. Eta aurten, Udalak abenduaren 18an herritarren foro edo bilera antolatuko duen proiektua azaltzeko. Bertan Foru Aldundiko teknikoek proiektuaren xehetasunak eman zituzten eta bertaratu ziren herritarrek euren galderak edo iritziak emateko aukera izan zuten. Bertan argi geratu zen, urtero eta behin baino gehiagotan, hondarrak sortzen duen arazoa.

Beraz, proiektu pilotu honen helburua naturalki sortzen den arazo bat irtenbide natural baten bitartez konpontzea da.

## Hileta edo omenaldi zibilak egiteko ordenantza arautu du Debako Udalak

Oraindik ere indar handia du erlijioarekiko loturak eta tradizioak gure gizartean; baina, azken urteotan urrats nabarmenak eman dira laikotasun bidean ere. Horren adierazle dira, adibidez, altaretik pasa gabe burutzen diren ezkon-

tzak, baita hileta edo omenaldi zibilak ere. Azken hauek Deban ospatzeko aukera ere badago jadanik, Udalak horiek arautzen dituen ordenantza berri bat arautu du eta. Azken agurrerako beste aukera bat zabaldu da, beraz, herrian.

2012ko azaroaren 29an Debako udalbatzarrak egindako osoko bilkuran hartutako hasierako erabakia indarrean jarri da dagoeneko, eta behin betiko bihurtu da. Hala dio Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean pasa den urtarrilaren 28an argitaratutako iragarkiak. Erabaki horren bidez, hileta ospakizunak baimendu eta egitea arautzen duen udal araudia onetsi zen.

Araudiko sarrerak dienez, “estatu ez konfesional eta laiko batean, erakundeek pertsonen eta elkarten askatasun ideologiko eta erlijiosoa eta gurtzarako askatasuna gizartean bermatu behar dute, horretarako muga bakarra, legeak ezartzen duen ordena publikoa errespetatzeko beharra izanez. Gure gizartean aniztasun ideologikoa, erlijiosoa eta kulturala da nagusi, gizarte plurala baita, eta ohituren eta ekintza sozialen adierazpenak etengabe ari dira aldatzen. Hil ondorengo hileta edo omenaldi zibilak egiteko behar soziala, erlijiorik gabe bizitzea aukeratu duten herritarrei zeremonia duina eta pertsonala eskaintzeko beharretik sortu da, herritar horiek bizitza ulertzeko duten modua errespetatzeko”.

Ordenantzaren arabera, “gure gizartean edo herrian bertan elkarren ondoan bizi diren erlijioek hildakoei agur esateko liturgia-ekitaldiak egiteko toki edo tenpluak dituzten bezala, Debako Udalak gizartean gero eta eskaera handiagoa duen behar bati erantzun behar dio”.

Hori guztia kontuan hartuta, ordenantzaren helburua



zera da azken finean: “Debako gizarte zibila osatzen duten familiek, adiskideek, erakundeek edo taldeek beren hildakoak omentzeko edo horiei agurtzeko egin nahi dituzten ekitaldiak eta beste edozein motako omenaldi zibilak baimentzeko arauak ematea”.

### Eskaerak, udaletxean

Hileta edo omenaldi zibilak egiteko eskaerak Debako Udaleko harrera bulegoan egin ahal izango dira (edo udaltzainetan, aste-buru eta jai egunetan); beranduenez, ospakizuna egin nahi

den egunaren bezperan aurkeztu beharko dira.

Eskaeran, besteak beste, honakoa adierazi beharko da: ospakizuna egiteko baimena eskatzen duen pertsonaren izen-deiturak, helbidea eta identifikazioa; hildako pertsonaren izen-abizenak eta heriotza ziurtagiria; ekitaldia zein egunetan eta ordutan egin nahi den; eta ekimenaren deskribapen laburra eta beharko duten materiala.

### Aurreikusitako lekuak eta ordutegia

Oro har, ospakizun hauek Aldats pilotalekuan –goiko espazio irekian edota pilotaleku barruan (betiere frontoi barruan ekimen berezirik ez dagoenean)– eta Itziarko pilotalekuan egingo dira. Hileta zibilak asteko edozein egunetan egin ahal izango dira, ordutegia arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara izanez. Larunbatetan, arratsaldeko ordutegiaz gain eguerdikoko 12:00etatik 14:00etara ere egin ahal izango dira.



## Gurutze Gorriak lau ikastaro ezberdin eskainiko ditu ekainera arte

Debako Gurutze Gorriak lau ikastaro eskainiko ditu herrian; lehenengoak otsailean hasi dira eta azkena, berriz, ekain aldera izango da, hondartzako sorospen zerbitzuak hasi aurretik. Klaseak begirale lanak egin nahi dituztenei edota interesa duen edonori zuzenduta daude.

Otsailaren 15ean ziren hastekoak Lehen Sorospen klaseak (martxoaren 9an amaituko da ikastaroa): ostiraletan eta larunbatetan izaten dira klase horiek. 18:00etatik 21:00ak arteko ordutegian ostiraletan, eta 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara larunbatetan. 40 ordu dira guztira.

Hurrengo ikastaroa DEA-ren (Desfibrilador Externo Automático) erabilpenean zentratuko da. Klaseak martxoaren 15ean eta 16an izango dira (17:00etatik 21:00etara ostiraletan, eta 9:00etatik 1:00etara larunbatetan). Gurutze Gorriak jakinarazi duenez, DEA-ren beste ikastaro bat ere egongo da aurrerago, ekainaren 8an eta 9an.

Martxoaren 28an, berriz, Uretako Sorospen-en ikastaroa (hondartzako modulua) hasiko da. Hamaika egunetzatuzko da (apirilaren 21a arte) eta ordutegia hauxe izango da: 9:00/14:00 eta 15:00/18:00. Ikastaro hau aurrera ateratzeko, gutxienez hamar lagunek osatutako talde bat sortu beharko da. Bertan parte hartu ahal izateko, martxoaren 22an sarrera-proba bat egingo da, partaideek gutxieneko gaitasun fisiko batzuk bete beharko dituzte eta.

Gurutze Gorriaren eskaintza “Auxiliar de Transporte Sanitario” delako ikastaroarekin osatu da; apirila, maiatza eta ekaina bitartean eskainiko da, ondoko ordutegiarekin: ostiraletan 17:00etatik 21:00etara eta larunbatetan, berriz, 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Interesatuak Gurutze Gorriak Alamedan duen bulegora jo beharko dute. Informazio gehiago: 943 19 10 32 telefonoan edo [deba@cruzroja.es](mailto:deba@cruzroja.es) helbidera mezu bat idatziz.



## Eskualdean 22 enpresa sortzen lagundu du Debegesak 2012an; horietako bat Deban

Debabarrean 22 enpresa abian jartzen lagundu du 2012an Debegesa garapen agentziak, Enpresa Berrien Sorrerarako Zerbitzuaren bitartez, eta horietako bat Deban sortu da. 2011. urtean baino lau enpresa gutxiago sortu dira guztira, baina jarduera ekonomiko berri horiei esker 33 lanpostu sortu dira eskualdean. Sektoreka, enpresa berri gehienak (11) pertsona zerbitzuak eskaintzen dizkietanak dira; 6 merkataritza arlokoak; beste enpresei zerbitzuak eskaintzen dizkietanak bi, ostalaritza arlokoak bi eta, azkenik, lehen sektoreko enpresa bat. Ekintzaile edo enpresa berrien sortzaileei dagokienez, 25 eta 35 urte bitarteko gazteak dira gehienak (%52), eta horietako asko eta asko lanik gabe zeuden.

Debegesako Enpresa Berrien Sorrerarako Zerbitzuak aholkularitza eta informazioa eskaintzen die, dohainik, enpresa berri bat martxan jarri nahi duten herritarrei. Informazio gehiagorako: [www.debegesa.com](http://www.debegesa.com).

## HARRERA Elkartearen aurkezpena egin zuten Kultur Elkartearen

Pasa den urtarrilaren 20an HARRERA Elkartearen aurkezpen publikoa burutu zen Debako Kultur Elkartearen. Gatazka politikoaren ondorioz preso egon direnak, edo iheslariak, herrira itzultzen direnean, gizartearen txertatzen laguntzeko babesa eta sostengua eskaintzeko helburuarekin sortu da HARRERA eta, hortaz, izaera asistentziala duen elkarte delata esan daiteke.

Aurkezpen ekitaldira hamarnaka lagun bertaratu ziren eta HARRERAKO kideek elkartearen helburuak, lehentasunak eta nondik norakoak azaldu zizkieten.



## Luzaro Eskolako neguko txapelketak

Urtero bezala, udazkenean Luzaro Eskolan hasitako txapelketek, neguarekin batera eman dituzte txapeldun berriak.

**Ping-pong** mahaiaren inguruan, lehia ikusgarriak izan dira parte hartu duten 5. eta 6. mailako 91 neska-mutilen artean. Urduritasu-



**Pilotan** ere partida on eta lehiatuak ikusi izan dira Luzaroko frontoian. Bertan parte hartu duten 3. eta 4. mailako 78 pilotariak bere onena ematen saiatu dira. Tarteka giro hotz eta umelagatik eskuak berotzea kostatu bada ere, zaleen animo eta oihuak lagungarri izan dituzte.



Aurtengo udaberriari begira, alebinak, berriz, ping-pongeari arituko dira. Benjaminak, berriz, ping-pongeari arituko dira.

nari aurre egin eta bere onena ematea lortuta, azkenean aurtengo irabazleak hauek izan dira:

**\*Mutilak:** Alejandro Ruiz, Patxi Aizpurua, Bitor Garitaonandia eta Roke Etxeberria. **\*Neskak:** Ane Amutxastegi, Naroa Laka, Ane Txurruka eta Malen Arakistain.



Kiroltasun handiz jokaturako txapelketaren emaitza honako hau izan da:

**\*Neskak:** Judit Amilibia, Ibone Mancisidor, Nahia Urkaregi eta Paula del Olmo. **\*Mutilak:** Unai Goikoetxea, Jon Gandiaga, Jon Ramirez eta Ion Bikandi.



Benjaminak, berriz, ping-pongeari arituko dira.

Luzaro L.H.I. (Kirol arduradunak)

## Santa eskean, euripean

Usadio zaharrari jarraituz eta eguraldi hotz eta bustiari aurre eginez, Santa Ageda bezperan herritar ugari aritu ziren koplari kopla santa eskean, eztarriz sano dabiltzala erakusten. Bazkalostean, adibidez, Luzaroko haurrek eskolako frontoian jardun zuten kantuan, aterpean, gurasoen

gozamenerako. Iluntze aldera, berriz, Musika eta Dantza eskolako ikasleek zein abesbatzako kideek hartu zieten lekukoa txikienei.

Presoen aldeko taldeak ere egin zuten bere urteroko irtenaldia baserriz baserri, ilunabarrean herriko kaleak alaituz bukatzeko.





## Agenda

## Otsailak 22, ostirala

-19:30. **Azken ostirala.** Preso eta iheslari politikoen aldeko mobilizazioa, Herrira mugimenduak deituta. Foruen plazan.

## Otsailak 23, larunbata

-21:00. **Erromeri afaria** Itziar jatetxean (hostalean).

## Otsailak 24, igandea

-16:30. **Haur zinea,** Kultur Elkartearen.

## Martxoak 1, ostirala

-19:00. **"Nola aukeratu zure tabla"** izenburupean, hitzaldia eskainiko du Mikel Agotek, Kultur Elkartearen (Pukas Surf taldeko taula diseinatzailea da Agote). Zurrumbilo elkarteak antolatu du hitzaldia eta euskaraz eskainiko da.



## Martxoak 2, larunbata

-Itziarko Gazte Eguna (gaia: ipuinak).

## Martxoak 3, igandea

-16:30. **Haur zinea,** Kultur Elkartearen.

## Martxoak 8, ostirala

-Emakumearen Nazioarteko Eguna.

## Martxoak 10, igandea

-16:30. **Haur zinea,** Kultur Elkartearen.

## Ikastaroak

-Aisialdi hezitzaileei zuzendutako formakuntza saioak. InteRed eta Topaguneak antolatutako "Zaintza biziz, errealitatea eraldatu" kanpainaren baitan, Deban taldea osatu nahi da (10-20 lagun ingurukoa) ikastaro hau burutu ahal izateko. Bi helburu nagusi izango ditu ikastaroak:

1) "Gure hezitzaile ikuspegitik eta oinarri ekofeminista batetik, botere harremanak era kritiko eta analitiko batetik aztertzea".

2) "Sistema kapitalista eta patriarkalaren alternatibak ezagutu, erreminta eta

metodologia alternatibo eta zehatzak aurkeztuz".

Ikastaroak atal teorikoa eta praktikoa izango ditu, eta doan eskainiko da.

Izen-ematea eta informazioa: Zuhatza Euskara Elkartearen (943 19 13 83).

-UEUK udaberrirako ikastaroak antolatu ditu Eibarren. Hamar ikastaro izango dira guztira eta martxoan abiatuko dira. Matrikulazio epea zabalik dago jadanik. Informazioa: 943 82 14 26 telefono zenbakian edo [www.ueu.org](http://www.ueu.org) atarian.

## Geoparkeko irteerak, martxoan

-Euskal Kostaldeko Geoparkeak bisita gidatuei ekingo die martxoan. Irteera ezberdinak antolatuko ditu, eta horien gaineko informazio eguneratu eta

osatu jasotzeko, [www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com) ataria kontsultatu daiteke. Turismo Bulegora deituta ere lor daiteke informazioa (943 19 24 52).

## Badator KORRIKA KULTURALA!

-Korrika 18ren baitan, Deban egitarau oparoa antolatu du Korrika Batzordeak. **Korrika Kulturala** martxoaren 2an hasiko da eta lasterketa ofizialarekin batera amaituko da. Aldizkari honen kontrazalean

egitarau horren aurrerapen moduko bat aurkituko duzue. Eta ohiko bideetatik ere jakinaraziko dira hitzordu guztiak. Beraz, adi egon, parte hartu eta gozatu!

"Eman euskara elkarri!"

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorrek: 629 639 685 / 029 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
[www.sagarmina.com](http://www.sagarmina.com)

Jarri zure publizitatea  
Berriketean aldizkarian!

*Zuhatza*

943 191 383  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

## ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **martxoak 8, 9, 10, 18, 19, 20, 21.**

Burgoa Zuazo: **otsailak 22, 23, 24.**  
**martxoak 4, 5, 6, 7.**

22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat guardian.

## DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201  
BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

9:30 - 13:30





# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



## ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



## Kristaldegia

Mota guztietako kristalak  
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



## ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

## ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 beheka . 20820 DEBA  
943 029 186

**HAZKUNE**  
FRUTA PRODUKIDUNEN ELKARTEA  
1975etik zuekin!



## URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

## LENTZERIA



## MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



# kutxa

zugandik zugana



Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22. 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazatik



## BURU - ZURI

Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauefan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA



Foruen Plaza  
Tel.: 943 191 035  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

## Calbeton



JATETXEA

Agustín  
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

## L.A.

### LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959  
Mobila: 670 411 786  
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



# 18. korrika

## BADATOR KORRIKA KULTURALA DEBARA ERE!!

**\*Martxoak 2:** Musikaz Blai, Arrano Elkartean (19:00etan). Maitena Monaco+EZBAI+Borja eta Vela. Ondoren, 22:15ean kantu afaria.

**\*Martxoak 9:** Hartu euskararen aldeko olatua, Debako hondartzan.

**\*Martxoak 21:** J.M. Olaizola "Txiliku" idazlearen hitzaldia, Kultur Elkartean. "Piztiarioak" liburuaren inguruan arituko da (19:00etan).

**\*Martxoak 22:** Korrika Txikia, herriko kaleetatik zehar (15:15ean).

**\*Martxoak 23: KORRIKA OFIZIALA** iritsiko da Debara (9:15ak aldera). Egun osoko egitaraua antolatuko da.

